

Rugby

Getxo azken txanpan

Cisnerosen aurka jokatu du gaur eta Bera-Bera bihar ariko da

Ohorezko Mailako Liga amaitzeko bost jardunaldi geratzen dira gaurkoarekin. Aurreneko hiru postuetan dauden Arquitectura, Getxo eta Santboianarentzat egun garrantzitsua izango da gaur tituluari begira. Getxotarrek Hernandezen baja izango dute Cisnerosen kontra. Bera-Bera kanporaketak prestatzen hasiko da.

Koldo Alduntzin / Donostia

HAMALAU GARREN jardunaldiak Liga erabakita utz dezake neurri handi batean, Xerox Getxok Cisnerosi irabazten badio gaur Madrilen (Ciudad Universitaria, 16:00) eta Arquitecturak Santboianari. Bizkaitarrek eta katalanek galtzen badute, Arquitecturak urrats nabarmena emango luke titulua eskuratzen. Madrildarrek galduko balute, berriz, hirurak berdinurik geratuko liriteke lehen postuan; betiere, Getxo gailen gertatuz gero.

Madrildarrek kanpoan ez bezala, tinko ari dira etxean eta motibazio handiz gainera. Ez du oso joko ikusgarria egiten, baina defentsa zorrotza egiten du. Horregatik, bizkaitarren lehen urratsa defentsa hori haustea izango da, aurrekoek metroak eginez eta atzekoek ondo asmatuz hankeko jokoan. Cisnerosek Etxean jokaturiko sei neurkete-tatik bi galdu ditu eta lau irabazi. Kanpoan berriz, zazpi jokatu ditu eta bakarra irabazi du, Bera-Beraren kontra 18-38.

Azken sei urteotan bizkaitarrek garaipen bakarra lortu dute Cisnerosen kontra, Madrilen. Hori 93-94 denboraldian gertatu zen, 15-16 nagusitu ziren. Iazko denboraldian, berriz, Liga irabazteko aukera guztiak galdu ondorengo igandean jokatu zuten Cisnerosek eta Getxok, eta madrildarrek gailendu 18-5. El Monte Ciencias sevillarrak 17-24 irabazi zion eta hiru urte pasatxoko galdu gabeko bolada eten zion. Horrek izugarriko eragina izan zuen.

Gaurko norgehiagoka ez da antzekoa izango. Getxotarrek aukera ezin hobea dute Liga irabazteko, azken jardunaldian Arquitectura liderra hartuko baitute Faduran. Nolanahi ere, gaur bertan Arquitecturak Santboianaren kontra jokatu beharko du eta katalanek ere aukera dute lehen postura igotzeko, Getxorekin batera bi puntura baitaude madrildarrendandik.

Gainera, bizkaitarrek 33-7 irabazi zioten joan den igandean El Monteri eta horrek motibazio pittin bat emango zien. Santboianak eta Getxok irabaziz gero, hiru talde jarriko liriteke lehen postuan. Hamabostekoei dago kienez, Cesar Hernandez mungiarrek ez du jokaterik izango. Hirugarren lerroko denboraldiko ia neurketa guztiak jokatu ditu, jokalaririk azkarra eta gogorra da, eta jokaldiak hala eskatuz gero gainean egoten den horietakoa.

Getxok, talde serioei dagokien bezala, prentsa arduraduna jarri du, Elisa Guantes, eta berak jakinarazi digunez Iñaki Ibarra joko zabaltzailea ere baja izango da. Solano bigarren lerroak El



Hernandez (elastikorik gabe) ez da gaur Madrilen izango. Baliteke Manzanok ordezkatzea (bere ezkerrean).

KOLDO ALDUNTZIN

Monteren kontra jokatu zuen aspaldiko partez, eta baliteke Manzano hirugarren lerroko gaur jokatzeko. Joaneko norgehiagokan bigarren zatian erabaki zuten bizkaitarrek garaipena, lau entsegu eginez.

Bera-Berak zorte txarra du lesioekin

Bera-Bera Madrigo Canoe hartuko du bihar (Anoeta, 12:00). Donostiako taldea azken postuan da eta ia ezinezkoa du promozioa jokatu gabe mailari eustea. Horregatik, behera ez jaisteko kanporaketa prestatzen hasi beharko dute. Jesus Velasco entrenatzen dituen mutilek badute nahikoa lan lesioekin. Joan den igandean, urrutira joan gabe, Gorka Bueno kapitaina

lesionatu egin zen Arquitecturaren kontra eta ez du jokaterik izango. Atzelari donostiarrak luxazioa du sorbaldan, eta gutxienez lau astetan jokatu gabe egon beharko du.

Bestalde, Goikoetxea, Gomez eta Berthomieu ere baja izango dira. Pascual miarritarrak Anoetan aritzerik izango duen duda da. Egoera honetan, entrenatzaileak jokalaririk gazteak eta postu aldaketak egin behar derrigor. Canoe ere bolada aski txarrean aurkitzen da, azkeneko sei partiduetan galdu egin baititu jarraian. Saikapenari begira, 6. postuan da Bera-Berak baino 8 puntu gehiago dituela. Jokaturiko 13 partiduetatik 5 irabazi ditu eta 8 galdu.

Mungiak Liga eskura

MUNGIK gaur lor dezake Liga irabaztea, Kakarraldoko plentziarra mendean hartzen badu (Atxurizubi, 16:30). Kontua da 15. jardunaldia jokatu dutela, eta gaurkoaren ondoren, hiru geratuko direla. Mungia da saikapenburu, 26 punturekin, eta Kakarraldoko bigarren, bost puntura. Bigarren posturako aukera duena Iruña da, Kakarraldorekin berdinduta baitago 21na puntura. Nafarrek laugarren postuan dagoen Irunen kontra jokatu dute (Plaiandui, 16:30). Gaurko beste bi norgehiagokak: Elorrio-Gernika (San Roke, 16:30) eta Gaztedi-Ordizia (Gamarra, 16:30) izango

dira, eta bihar, Bilbao-Zaragoza (El Fango, 11:30).

Bestalde, Getxoko Karitte Alegria, Elorrioko Olatz Fernandez eta Hospitalet-eko Ines Etxegibel durangarrak Kataluniaren kontra jokatu dute bihar Bartzelonako Foixarda zelaian (12:00etan). Hiru neskek Espainiako selekzioarekin dira Bartzelonan beste 22 jokalarirekin. Espainiak Europako txapelketa jokatu du Nizan (Frantzia), apirilaren 1etik 7ra eta txapelketa hori prestatzeko da egonaldia. Ondorioz, ez da euskal Ligarik izango, ez emakumezkoetan, ez gizonezkoetan. X

laburrean

FUTBOLA

■ Kanadar bat izango da Brasilgo Ligako lehenengo emakume epailea

SONIA DENONCOURT kanadarra izango da Brasilgo Ligan partituko bat zuzenduko duen aurreneko emakumezko epailea, atzo Nazioarteko Futbol Federazioak (FIFA) esan zuenez. Gaur zuzenduko den neurketa hori Denoncourtek, Bertan, Sao Jose eta Palmeiras taldeak neurtuko dira, Txapelketa Paulistako (Sao Paulo Estatu Federaleko txapelketa da hori) lehenbiziko neurketan. Epaile kanadarrak urte ditu eta esperientzia handia du futbol munduan. X

ARRAUNKETA

■ Hogeita bi traineru ariko dira gaur Aginaga-Orio jaitsieran

TRAINERU ugari hartuko du parte gaur (16:45) Aginaga-Orio jaitsieran. Erlojupeko proba izango da. Ur Joko, Hondarribia-Mamut C, Hernani-Orona, Arraun-Donosti, Fortuna-Bingo Londres, Castro Bermeo, Santiagotarrak-Murias, Elantxobe, Portugalete, Orio-Cepsa B, Ciudad de Santander, Hondarribia-Mamut B Zarautz-Aiten Etxe B, Isuntza, Trintxerpe-Pares Zubia, Getaria-Indaux, Zarautz Aiten Etxe A, Ondarroa-Avia, Koxtape-Iberdrola, San Pedro-Phillips eta Orio-Cepsa A izango dira partehartzaileak. Jaitsiera Zarautz Arraun Elkarteak antolatuta du. X

E S K I A


■ EAEko eta Nafarroako Iraupeneko Txapelketak gaur eta bihar Somport estazioan

GAUR ETA BIHAR jokatu dira 1997ko EAEko eta Nafarroako Iraupeneko Txapelketak. Distantzia motzeko txapelketak izango dira eta Somporteko eski estazioa izango da lekua. Estilo klasikoan jokatu dira. Gizonezkoak 2,5, 5, 10 eta 15 kilometroko probetan hartu beharko dute parte. Emakumezkoak, berriz, 2,5 eta 5ekoetan ariko dira. X

■ Aamodt norvegiarrak laugarren urrezko domina mundiala lortu du

KJETIL ANDRE AAMODT norvegiarra da munduko konbinatu probako txapelkun berria, bera izan baitzen atzo Sestrieren azkarrena. 3.10.40ko denbora egin zuen. Aamodtek bere bizitzako laugarren urrezko domina mundiala du atzokoa. «Baziren jada lau urte ez nuela urrezko domina irabazi. Berriz gailurrean nagoela ikusteak poz ematen dit», zioen norvegiarrak atzo. Beste hiru tituluak 1993an (eslalom eta eslalom erraldoia) eta 1992an (superrerraldoia) eskuratu zituen. Atzo bigarren Bruno Kerneren suitzarrak izan zen (3.10.68) eta hirugarren Mario Reiter austriarra (3.11.69). X

DUANE BURLESON / AP



Detroit indarrean Grant Hillen eskutik

Denboraldi erdia bete dute dagoeneko NBAko taldeek, eta Detroit Pistons indarrean ageri da Ekialdeko Konferentzian. Azken jardunaldian Houstoni 96-87 irabazi zion, eta bigarren itzulian aurre egiteko egoera ezin hobean dira Grant Hill (argazkian) eta enparauak. Ekialdean Chicago Bulls eta Miami Heat taldeek baino ez dute Detroiten baino marka hobea. Miami, hain zuzen, Atlantic Divisionen lider jarraitzen du Milwaukeei 102-90 irabazi ostean, Voshon Lenarden 38 punturekin. Jardunaldiko beste emaitzak: Charlotte 115, Sacramento 100; New Jersey 100, Indiana 104; New York 96, San Antonio 84; Orlando 119, Boston 111; eta Minnesota 103, Vancouver 86.